

uk

89. zenbakia / 2005 azaroak 6



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Txakur alperra. Alfredo Aldai.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Hipotekak. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Axpeko eribera.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Jon Txaber Mendizabal. Asier Mentxaka.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Plentziako txirlak, Asier Mentxaka.
26. ERREPORTAJEA. Eskualde berdea, Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Komuna Erandion, Juan Luis Markaidea.
30. BERBETAN. Sorkun, U. B.
34. FOTOGRAFIA. Sri Lanka, Alvaro Gonzalez.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. *Aupa Etxebeste!* pelikula.
43. MUSIKA. Benito Lertxundi azken lana. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Ramiro Pinilla. Liburuaren erreseinak.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Ana Lopez Asensio. Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardazaren gaineko lezioa. Non jan? Adibidez, Algortako The pipers taberna.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako San Inazio eskola, 1976.
54. AITORMENAK. Iñigo Muguruza.

Azaleko argazkia: Sri Lanka (Alvaro Gonzalez)



30 Sorkun



9 Jon Txaber Mendizabal

Berbetan

Oso gaztea bada ere, dagoeneko urte asko eman ditu musikan Sorkunde Rubio oreretarak. Disko berria dakargu besapean.



46 Ana Lopez Asensio



34 Sri Lanka



20 Carlos Matas



54 Iñigo Muguruza

Doan BERRIArekin

Pirritx eta Porrotx

familien
karta-jokoa



Azaroaren 5etik aurrera



Euskaldunok behar dugun **berria**



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

BATXILERGOAK • TEKNOLOGIKOA
• NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)
B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETAK: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egunola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Esti Echeña, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lores, Amaia Arriaga, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaide da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du



TXIKI



Getxo
UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandio Udala

Aldizkari honek Erandio Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandio Berbets Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Golioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Sopelana Udalaren laguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



EROSKI FUNDAZIOA



Aldizkari honek Eroski Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du



uk

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

Bizikletak

Txirrindulak jolasteko eta kirola egiteko tramankuluak baino gehiago dira. Ibilgailu merke, garbi eta gidatzeko errazak ere badira, nor ez da inoiz bizikletan ibili?

Gero eta txarrago dagoen ingurumenari begira, autoen kutsadurari -baita kutsadura akustikoari ere- aurre egiteko ezinbestekoak dira. Baina kontzientzia ekologista ez daukatenei ere primeran datorkie txirrinaz ibiltzea. Izan ere, gasolinaren prezioa gora doa etenbarik, inoiz ez behera, ezta petrolio ekoizleek petrolio-upelen balioa bajatzen dutenean ere. Gainera, bizikleta garraio bide legez erabiltzen dugunean -aldi berean eta gehiago pagatu barik!- gure osasunari mesede egiten diogu eta ia gura barik hain “neketsua” den kirola egiten dugu, eta zelan ez, “astirik ez daukat kirola egiteko” bezalako aitzakiakaz amaitzen dugu.

Hortaz, denok gaude ados txirrindulen erabileraren onurei dagokienez. Orain, falta zaiguna -gogoia eta lehen urratsa ematen ausartzeaz gain- txirrindulaz arrisku barik joateko eskualdean eskasak diren bidegorriak dira eta, esaterako, Getxoko Aixerrotoako ikasleek ez daukate eskolara txirrindulaz segurtasunez joaterik. Horregatik, Aixerrotoako ikasle batzuek eskolara txirrindulaz joan ahal izateko bidegorriak diseinatzen dabilta. Ekimen benetan txalogarria. ⁴

UK-ko lantaldea

irakurleak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero irakurri > **berria**

[irudia]



GALEAKO BIDEA, 2005eko IRAILA

Txakur alperra? / Hau mundu zoroa! Egunero-egunero zur eta lur uzten gaituen zeozer ikusten dugu. Goiko irudia erredakzioara ailegatu denean zera etorri zaigu burura: *hori bai txakur alperra!* Gero gaiztoak sentitu gara eta, akaso, txakurra gurditxuan joatea gaixotasunen batek eragingo zuela bururatu zaigu. Hezurren bat apurtuko zuen animalia gizajoak edota, beharbada, depresioak jota ibiliko zen koitadua. ^m / Argazkia: **Alfredo Aldai**

Leihatila

> Maddi Albizu

Euskara, maiatasuna eta askatasuna

Nork ez die inoiz esan gazteleraz barra-barra ari ziren bi ume horiei “egizue euskaraz, kontxo!”?; zein euskaldunek ez du apur bat errudun sentimendua izan solaskide euskaldunarekin gazteleraz egin duenean?; zenbatetan ez dugu entzun behar izan “euskaldunak bazarete... zergatik gazteleraz zuen artean?”. Hau dena, eta gehiago, euskarerekiko maitasunaren mesedetan egiten omen da. Nik ez ditut hizkuntzak maite, nik ez dut euskara maite. Nik maitatuak izatea merezi duten lagunak maite ditut soilik. Umeei askatasunez jarduteko irakatsi behar diegu, eta espero dezagun, askatasun horretan euskara hautatzea komunikatzeko. Euskaldunek nahi duten hizkuntzan komunika daitezela euskaldunekin, askatasunez hartutako adostasunezko erabakia bada. Hizkuntza hautua eremurik intimoenean dago, eta ez diogu inori eremu horretan gure baimenik gabe sartzen utzi behar. Hori bai, hizkuntz eskubideak errespetatu daitezela, arren. 4

photoshop > perretxiko erraldoiak Berangon



Irudiak eta manipulazioa: A. M.

IRITZIA

Etxebizitza eduki nahi badugu, zorretan emango dugu geure bizitza gehiena. Gai honen gainean iritzia eskatu diogu Iratxe Amezaga soziologoari.

Hipoteka zama astunegia

Zoritarrez denok badakigu zer den hipoteka bat. Lerro hauek idazten ari naizen honek ere ondotxo dakit zer den. Izan ere, nirea 2034 urtearen bueltan “altxatuko” dut, hau da, 64 urte beteko ditudanean. Ordurako Bankuari etxearen hasierako prezioaren %50 inguru gehiago ordainduko diot. Hipotekei esker, inmobiliarietako erakusleioetan ikus ditzakegun prezioak ez dira “guztiz” errealak, nolabait esatearren. Atera kontuak bestela.

Inoiz 280.000 euroko etxe bat erosiko bazenu (Getxon horrelakorik egongo baliltz, noski), etxearen saltzaileak horixe jasoko luke ordainean. Horrek ez du esan nahi, ordea, zuk 280.000,00 euro ordainduko duzunik, ezta askoz gutxiago ere. Salerosketa berezi honetan saltzaileak jasotzen duena eta erosleak ordaintzen duena ez datoz bat. Zer gertatzen da orduan eragiketa honen bi muturren artean? Hipotekaren esku beltza. Eman

dezagun langile xeheak garelara eta, demontre! ez daukadula diru hori guztia kolpetik ordaintzerik. Dirua bankuari eskatzea beste erremediorik ez dago. Orduan, mesede bat erregutzera goazenean azaltzen dugun apaltasunaz, bankura goaz diru eske. Eta, hara! ezinezkoa zirudienean... eman egin digute baina! Opari pozoitua da ordea.

Batez besteko interes tasak aplikatuz gero (%2,5 gutxi gorabehera) eta 35 urtera, hainbeste urtetan itxarondako hipoteka

«Bankuei etxearen prezioaren %50 gehiago ordaindu behar zaie»

altxatzeko unea iritsitakoan 422.290 euro ordaindu ditugu. Saltzaileak jasotako 280.000 euroen eta guk bankuari ordaindutako 422.290 euroen arteko aldea 142.290 eurokoa da (22.766.400 milioi pezeta!). Beste era batera esanda, hilean 1.000 euro inguru ordainduko bagenu hipoteka sinatu eta 23 urtera etxea ordaintuta egongo litzateke. Hala ere, oraindik ere beste 12 urte falta zaizkigu hipotekaren soka zintzurretik kendu ahal izateko. Azken 12 urte hauetan bankuarentzat ari gara lanean.

EAEko familien batez besteko diru-sarrera 30.000 eurokoa dela kontuan harturik (hau da, 2.500 euro hilean), hipotekarako gure diru-sarrera osoaren %40 inguru gorde behar dugu, usaindu ere egiten ez dugun dirua da, gure kontu korrontean sartu bezain laster alde egiten duena.

Ez zen nire asmoa hainbeste zenbakirekin inor zorabiatzea. Hala ere, zenbakiei begiratuta ezin eutsi anarkisten aspaldiko lelo hura oihukatzeke gogoari eutsi: “delitua ez da bankuan lapurreta egitea, bankua sortzea baizik”. 4

Iratxe Amezaga (soziologoa)



ERANDIO, OROIMENAKO IRUDIAK ULIAN GOMEZ LIJUPUTIK HARTUA



ASIER MENTZAKA

Iraganez doa denbora* beti / AXPEKO ERRIBERA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

[talaia]

ondoetorria > saharaiuen lehendakaria Leioan

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko ordezkaritza bisita ofizialean egon da Euskal Herrian Jaurlaritzak gonbidatuta. Ordezkaritza honen burua saharaiuen presidentea den Mohamed Abdelaziz izan zen. Ajuria Eneko jauregian Juan Jose Ibarretxerekin egon ondoren, Leioako Artatza jauregian harrera beroa egin zioten ordezkaritza honi. Alderdietako ordezkariak, foru aldundi eta udaletxeetakoak, kultura mundukoak, sindikalgintzakoak, komunikabideetakoak, Sahararekiko elkartasun taldeetakoak... Euskaraz ere mintzatu zen Abdelaziz, jasotako elkartasuna eskertzeko eta etorkizunean ere herri bien arteko elkartasun bideak irekita jarraitzea espero duela azpimarratu zuen. ^m



Lagun asko elkartu zen Artatzako atean Abdelaziz presidenteari ondoetorria emateko

protesta > euskarazko prentsa haserre



Jaurlaritzak euskarazko prentsari ematen dion diru laguntzen kopurua ez da handitu azken bost urteotan, urtetik urtera kostuak etengabe handitu badira ere. Egoera aztertu ondoren euskarazko hedabide idatzietako eragileek Jaurlaritzari euren kezken berri eman eta diru kopuru hau igo dezala eskatu diote. Hori ez da arazo bakarra. Azaroan gaude eta oraindik komunikabideek ez dakite zenbateko laguntza jasoko duten aurren, ezta diru hau noiz jasoko duten ere. Horregatik laguntzen zenbatekoa urtearen lehen sei hilabeteetan jakinaraztea eta ordaintzea eskatu zaio Jaurlaritzari. Egoera salatzeko agerraldia egin zuten kazetariak Donostian hilaren 10ean. ^m

Argazkian, kazetarien agerraldia

[erretratua]



Sei urte besterik ez zituela hasi zen Jon Txaber Itxas Argian. Gaur egun 34 dauzka eta han segitzen du.

Jon Txaber Mendizabal > Itxas Argia dantza taldekoa

Jon Txaber Mendizabal betidaniko getxoztarra da. “Beno, Andra Marikoa, ez da gauza bera, e?”. Holan hasi da elkarriketa, baina gurago izan dugu geografia kontuak albo batean utzi eta dantzaz berba egitea, horixe da-eta Mendizabalen pasioa. “Dantza odolean eroaten da”, dio, “edo nik neuk behintzat badaroadala uste dut; edozein dantza mota gainera, sentitu egiten dut musika”. Hori bai, dantza mota guztien artean euskal dantza du gogokoen 34 urteko gizon honek. Bizitza osoa emon du Itxas Argia dantza taldean, sei urte besterik ez zeukala sartu zen eta. Aitortu digunez, are gazteago hasiko zen orduan entsaguz arduratzen zen gizonak, Paulino Azkuek, “beldur apur bat” eman ez balio. Baina hasi egin zen azkenik, eta denboraz, berak hartu du Azkueren lekua. Hogeita lau urtegaz hasi zen mutilen entseguak zuzentzen, eta horretan segitzen du. Orain, antza, berak sortzen du errespetua, lehen Azkuek bezala. “Ni agertzen naizenean jendearen jokabidea aldatzen da, emoten du ni ez banago apur bat lasaiago dabiltzala, ez hain gogo handiz edo...”. Orain dela bost bat urte krisia egon zen taldean, Mendizabalek dienez -“talde guztiei jazo zitzairen, nik uste”-, baina gaur egun Itxas Argia momenturik gozoenak bizi ditu. Hori bai, gogorra da. “Sakrifizio handia da, eta oso gitxi hartzen da ordainea, azken batean folkloreari eustearren baino ez gagoz hemen”, iritzi dio Mendizabalek. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

Herriko toponimia

Sofia Suso eta Mikel Gorrotxategik osatutako *Getxoko leku izenak* liburuan oinarrituta **Getxoko toponimia** CDa argitaratu du Euskara Zerbitzuak

Herriko toponimia ezagutarazi eta euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko helburuekin plazaratu dute lan berri hau. Azaroaren 17an herritarrei aurkeztuko zaie Faduran egingo den ekitaldi publikoan. Ondoren salgai egongo da herriko liburudendetan.

Zati bitan banatu dute herriko toponimiaren CD interaktibo hau. Atal bat beren-beregi 6-12 urte bitarteko ume-gazteei zuzenduta dago, eta batez ere gazte horien artean Getxoko toponimiaren ezagutza sustatu nahi da. CDaren bigarren atala, oster, kontsultak egiteko pentsatuta dago eta herriko mapaz aparte, *Getxoko leku izenak* liburuan argitaratu zen datu-base osoa dakar. Honetaz guztiaz gain, bilatzaileak, ibilaldi birtualak, makina bat argazki... batzen ditu *Getxo toponimia* CDak.

Produktu atsegina eta esan bezala 6-12 urte bitarteko neska mutikoentzat bereziki egokitu dute egileek lan hau. Ahalegindu dira gazteentzat atsegina egiten eta horregatik estetikoki oso erakargarria da. Fikziozko pertsonaia bat ere sortu dute: “Aixerrota”. Pertsonaia honek CDan zehar eta euskara hutsean gidari lanak egiten ditu. Guztira sei joko ere badakartza CDak, joko guztiak banan bana pasatu behar dira eta hau lortzen duenak piraten altxorra aurkituko du.

Bestetik, datu-base interaktiboa darama barruan CDak eta botoiak klikatzea baino ez da egin behar informazioa jasotzeko. Irudi ederrez ere ornitu dute lana eta makina bat



Getxoko Andra Mari elizako atze aldean herriko baserri zaharren izendegia dago

eraikin eta herriko toki ezagunen argazki panoramikoak gozatu ahal izango ditu erabiltzaileak. Baina askoz ere argazki gehiago da kartzta CDak: baserrietakoak, ortoargazkiak, kaletegia... argazki-fondo oso handia. Euskara Zerbitzukoek Estudios Mercator &

«Mapak, jokoak, argazki panoramikoak, leku izen guzti-guztiak...»

Cross Media Interactive enpresara jo zuten lan handi hau egiteko. Enpresa hau arduratu da CDaren errealizazioaz, diseinuaz eta programazioaz. Guztira 2.500 ale kaleratuko dituzte eta Getxoko 20 liburudendatan salgai ipiniko dituzte, 6 eurotan.

Amaitu aurretik, gogoratu CDa azaroaren 17an arratsaldeko 7etan aurkeztuko dela



Fadurako areto nagusian egingo den ekitaldian. Herriko euskaltzale guztiak bildu nahi dituzte han Euskara Zerbitzukoek. Luntxa eta sorpresaren bat ere bat egongo dela iragarri digute. Beraz, danok Fadurara! m

Mugikortasun jasangarria

Klasera txirindulaz joan ahal izateko bidegorriak diseinatzen ari dira **Aixerrota** institutuko ikasleak



Alkateari bidegorria eskatzera udaletxera joan ziren ikasleak

Ikasle askok institutura bizikletaz joateko ohitura osasungarria daukate. Gehiago ere izan litezke baina oztopo handia daukate: ez dago ikastetxerainoko bidegorririk. Egune-ro auto eta autobusen artean ibili behar dira eta hori oso arriskutsua izaten da.

Bada, autorik gabeko egunean bertan, Alkatearengana joan ziren Aixerrotako ikasleak euren eskakizunaren berri ematera. Agenda 21 deritzon planaren barruan eta mugikortasun jasangarriagoa lortzeko asmoarekin, instituturainoko bidegorriak eskatu zizkioten. Alkateak berak ikasleei ibil-bibide posibleak azter zitzatela eskatu eta berak azterketa hau udal teknikariei helara-

ziko ziela esan zien. Orain lan hori egiten ari dira Aixerrota institutukoak. Bidegorri bi diseinatzen dabiltza. Batek Algortako goi parte eta ikastetxea lotuko litzuzke (Telletxe, Aingeruaren etorbidea, Galea...). Bestea, berriz, Fadura inguruan hasi eta Aixerrota instituturaino joango litzateke (Fadura, Aldapa, Andra Mari...).

Oso argi daukate Aixerrotako ikasleek bidegorri hauek eginez txirringaren erabilera izugarri sustatu eta handiko litzatekeela. Eta ez bakarrik euren ikasetxean, alboan daukaten Andra Mari eskolakoentzat ere oso baliagarriak izango lirateke bidegorri hauek. m

GETXO ANTZOKIA ERAITSIKO DUTE TEATRO BERRIA ERAIKITZEKO

Algortako Gran Cinema zena eraitsiko dute eta bertan antzoki modernoa eraiki nahi du Udalak. Oholtza zabala eta orkestra batentzako plataforma edukiko ditu antzoki berriak, gainera, kendu ahal izango diren 600 jesarleku ipiniko dituzte. Alkatearen hitzetan lanak 2007an has daitezke eta eraikin berria 12 milioi euro inguru kostatuko da. Datorren urteko aurrekontuetan 180.000 euroko diru partida onartu dute eraikin berriaren beharrak aztertzeko. Getxon egiten diren ekitaldi eszeniko gehienak hartuko ditu antzoki honek. Gainerako ekitaldientzako karpa mugikorra erabiltzen segituko da.



ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN KAIERA AZAROAREN 10EAN EGONGO DA ALGORTAN

18/98 sumarioak eskubide zibil eta politikoak urratzen dituela iritzita, 18/98+ taldeak eskubide horiek aldarrikatzeko eta herritarren atxikimendua jasotzeko ekimena jarri du martxan. Honen bidez, kolore askotako kaiera bat osatu gura dute. Kaiera liburuxka handi bat izango da non Euskal Herriko arlo askotako 100 pertsona esanguratsuren ekarpenak jaso diren. Horien atzetik, herritarren ekarpenak jaso gura dituzte: testutxo bat, olerki bat, marrazki bat, esaldi bat... Euskal Herrian zehar dabiltza atxikimenduak jasotzen eta hilaren 10ean Algortara etorriko dira (19:30ean Telletxen) atxikimenduak jasotzeko asmoz.

san inazio

autoeskola

1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP

baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45

ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-
- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, beheko eskuina

ALGORTA

94 94 430 76 96



GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1

T: 430 22 13

GETXO

Telletxe 13

T: 460 02 88

ALGORTA

Getxo Moda 2005

Urtebeteko etenaren ostean, Areetako geltoki plazan ipinitako karpan egin da berriro ere Getxo Moda jaialdia. Aurtengoa 21. edizioa izan da eta arrakasta ikaragarria eduki du “meetting” honek. Izan ere jaialdiak iraun zuen bi egunetan jendetza handia bildu zen karpara moda kontuetan azken joerak zeintzuk izango diren ikustera. Diseinatzaile gazte eta berrien arlopek zaleak txunditu zituzten. Hantxe erakutsi ziren esaterako, Sorkunde Ostiz, Idoia Garcia, Laia Valls eta beste hainbaten sormenak. Promesa hauen alboan ospe handiko arropagileak ere egon ziren Getxo Modan, adibidez, Ian Mosh, Alicia Rueda edota Mario Rogel.



Euskaltegiaren urtebetetzea 20. urteurrena ospatzeko makina bat ekitaldi antolatu ditu Udal Euskaltegiak



Argazkian, 1986-87 ikasturteko ikasle talde bat

Ez da tanta! Hogei urte ditu Getxoko Udal Euskaltegiak. Lan ikaragarria egin dute urte luze hauetan guztietan zehar hango beharginek. Datu argigarri bat: 20 urte hauetan 13.000 lagunetik gora pasatu da euskaltegi honetatik. Urtebetze berezi hau ospatzeko makina bat ekitaldi antolatu dituzte. Hilaren 7tik 11ra bitartean Erromoko kultur etxeko erakusketa aretoan azken 20 urteotan euskaltegian ateratako argazki mordoa eskegiko dituzte. Argazkiez gain, eskoletan bertan zein txangoetan grabatutako ikus-entzunezkoak ere ikusi ahal izango dira erakusketa honetan.

Bestetik, azaroaren 10ean mahai-ingurua antolatu dute Villamonteko kultur etxean. Gaia hurrengoa izango da: Euskararen bilakaera azken 20-25 urteotan, hizkuntzarekiko sentimenduaren eta irudiaren bilakera. Kike Amonariz, Joseba Santxo, Aitor Etxebarria eta Joxean Muñoz izango dira hizlariak. Azkenik, biharamunean (azaroak 11) euskarazko film laburren emanaldiak egongo dira Getxo Antzokian eta Villamonteko kultur etxean. Zorionak, udal euskaltegi!

Informazio gehiago: 94 464 62 99

BERBALAGUNA EKIMENA ATZERA IPINI DUTE MARTXAN

Euskara ikasten ari direnei euskaraz dibertitzeko, lagunak egiteko, azken batean, gure hizkuntza erabiltzeko aukerak emateko berriro ere antolatu du Egizuk Berbalaguna ekimena. Berbalagunaren bitartez euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak taldetan elkartzen dira euskaraz hitz egiteko gustukoa duten ekintzak egiten: kirola, paseatu, kafea hartu... Orain dela hamar urte ipini zuten abian Berbalaguna eta esaterako iaz 60 lagun ibili ziren. Ikasturte berriari hasiera emango diote laster eta parte hartzeko deialdia egin dute Berbalagunaren antolatzaileek.

Harremanetarako:
605 739 916 edo egizu@hotmail.com

GURE ESKUALDEKO EUSKARA JASOTZEKO DEIALDIA

Getxoko udalak Uribe Kostako euskaldun zaharrei grabazioak egiteko deialdi publikoa egin du. Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak eskualdeko ondare linguistikoa batu eta ezagutzera emateko sinatu zuten akordiotik dator deialdia. Helburua eskualdeko azpieuskalkiaz berba egiten duten euskaldun edadetu batzuen hizkera ikus-entzunezko grabazioen bidez jasotzea da, gerora batutakoa ezagutzera emateko.

EUSKAL DANTZAK ETA KANTAK IKASIKO DITUZTE HERRIKO 1.800 HAURREK

Euskararekin lotura zuzena daukaten euskal kulturaren adierazpenak herriko gazteenek ezagutu, ikasi eta erabiltzea du helburu Udalak diruz lagundutako ekimen honek. Euskal kantak eta dantzak ikasiko dituzte horrela Getxon dauden hamabi ikastetxeetako (publikoak zein pribatuak) 1.800 gaztek ikasturte honetan.



Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Fernando Agirre > zeramikaria

“Jendeak ez du gure lana artetzat jotzen, horregatik gure lanak komertzializatzeko beharra daukagu”

51 urteko leioaztar honek Bilbon dauka lantegia. Zeramika eta artearen arteko lotura aldarrikatzen du eta instituzioen laguntzari ezinbestekoa deritzo sektoreak aurrera egin dezan. Buztina eskuekin landuz euskal figura tradizionalak (aizkolariak, arrantzaleak, traineruak...), elementu eskultorikoak (faxadak, armariak...) eta muralak ere egiten ditu. Leioako XXVI. Eskulangintza Azokan erakustokia izango duen leioaztarretako bat izango da. Bertan, buztinari eragiten ikusi ahal izango dugu.

«**Lagundu egin behar zaio artisautzari, bestela desagertu egingo da**»

—Nolatan hasi zinen buztina lantzen?
—Orain dela urte asko, agian 30 urte, hasi nintzen ikastaro batzuetan Errekaldeko Herri Unibertsitatean. Hortik, jende multzo bat atera ginen eta bakoitzak bere bidetik jo zuen. Batzuk zeramika tradizionalera ekin zioten, beste batzuk figuratibora. Nik tradizionala jorratzen dut batez ere.
—Bizitzeko adina ematen du zeramikak?
—Ez, inola ere ez. Beste gauzak egin behar dituzu aurrera ateratzeko. Zeramikaz, edo hobe esanda, artisautzaz bizitzea oso zaila edo ezinezkoa da gaur egun. Jende askok banatuta ikusten ditu zeramika eta artea eta hori ez da horrela izaten beti. Horregatik, gure lanak komertzializatzeko prezio merkean egiten ditugu; artetzat ez delako hartzen.



Argazkian, Fernando Agirre beharrean

—Beraz, artistatzat daukazu zeure burua?
—Nik lehenik eta behin artisautzat daukat neure burua. Gero badaude lan batzuk, nahiko ondo ateratzen direnak eta artelantzat har litezkeenak.
—Leioaztarra izanik, esanahi berezirik al dauka Leioako Artisautza Azokak?
—Tradizio handikoa da. Agian Euskadin egin zen lehena. Gainera, herrikoa izanik egiten duzun lana erakusteko aukera ona da. Esan behar da, hala ere, askotan herrikoak ahaztuta edukitzen gaituztela.
—Asko saltzen da Leioako azokan?
—Beno, dena erlatiboa da. Batzuetan saldu

baino gehiago erakutsi egiten da. Beste tzuetan gehiago saldu edo bezero berriekekin kontaktatzen da. Leioako Azoka nahiko ondo antolatuta dago eta erakustoki polita da.
—Azoketatik kanpo badago saltzeko beste aukerarik?
—Hori gure erronketako bat da. Hor bada-go jorratu beharreko merkatua. Bai komertzioei zein instituzioei begira. Administrazio publikoaren trofeoak, enpresetako opariak, etab. egitea artistauei eskatu ahal zieten. Sektoreari lagundu egin behar zaio, bestela hau desagertuko da. Argi dago. Nik neuk, behintzat, argi daukat. m

Eskulangintza azoka

Azaroaren 5ean eta 6an **Errekalde plazan** euren lanak erakutsiko dituzte artistauek



Guztira 42 erakustoki ipiniko dituzte herrian

Azaroaren lehen asteburuan iragandako garaia, makina eta teknologia aurrekoak, gogoratuko dituzte Leioan eskuz landutako artelanean azokan. Aurtengoa Leioako Eskulangintza Azokaren XXVI. edizioa da. Hilaren 5an eta 6an, larunbata eta igandea, Errekalde plazan atondutako 42 erakustokietan hainbat eratako eta material ezberdinekin sortutako eskulanak ipiniko dituzte ikusgai eta salgai. Horietatik guztietatik zazpi gastronomia alorrekoak izango dira eta gainontzekoak artisauenak. Euskal Herriko ez gain Estatuko artistauek ere parte hartuko dute ferian: Gaztela eta Leongoak, Kataluniakoak, Errioxakoak, Madrilgoak, Kantabriakoak eta Asturiasekoak etorriko dira euren lanak erakutsi eta saltzera.

Leioaztarren eskulanik ere egongo da han; Ana Jauregi eta Fernando Agirre zeramikariek erakustoki bana edukiko dute Kultur Leioa alboan dagoen Errekalde plazan. Antolatzaileek, bere aldetik, produktu guztiak artisautza tekniken bitartez egin izanaren kalitate ziurtagiria luzatuko dute.
Urtero bezala arropa diseinua, jostailuak, harri eta zura tailuak, beirak, atxabitxiak, larrukiak eta eskulan ugari egongo dira aukeraren bistaren gozamenerako, eta zergatik ez, etxera artelanean bat eramateko parada ere bada. Gainera, gastatutako sei euroko zozketa baterako zenbakia jasoko da. Sariak, noski, artistauek sortutako eskulanak dira. Bestalde, artisauen artean, erakustokirik ikusgarrienak 240 euroko eskupekoa jasoko du. m

LEIOAKO XI. MENDI JARDUNALDIAK

Azaroko asteazken guztietan ikus-entzunezko emanaldiak eta konferentziak eskainiko ditu herriko mendi taldeak antolatu dituen Leioako XI. Mendi Jardunaldietan. Hizlari oso ezagunen eskutik (esaterako, Kepa Lizarraga medikua edota Pou anaiak) mendiaren inguruko gaiak jorratuko dira: osasuna, eskalada, bidaia... Emanaldiak Errekalde plazan dagoen Adinekoen Etxean izango dira azaroko asteazkenetan arratsaldeko 19:30ean. Informazio gehiagorako: <http://turiaventura.com/leioamt/> edo 689 721 917 telefonora deitu.

FRONTOIEN ETA PILOTAREN HISTORIA KULTUR LEIOAN

Kultur Leioak pilotaren erakusketa osatua eskainiko du azaroaren 7tik 20ra. Historian zehar pilotaren modalitate desberdinetan erabili diren tresnak eta pilotak aurkezten ikusi ahal izango dira. Horrela, kirol honek azken 300 urteotan izan duen bilakaera zein izan den ikusi ahal izango da. Horrez gain, argitalpenak, objektu bitxiak eta pilota profesionalari buruzko atal bat ere izango dira ikusgai. Udal Kirol Instalazioak eta Leioako Udalaren Kultura Sailak antolatu dute erakusketa Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

URIBE KOSTAKO SKATE ARGAZKIAK

Carlos Terreros algortarra Estatuko skate argazkilaririk onenetakoa da. Berak Uribe Kostan egindako kirol honi buruzko argazki ikusgarriekin erakusketa ibiltaria antolatu du UK aldizkariak. Irudi horietan azaltzen direnak eskualdeko skater gogoangarriak dira, eurretako batzuk gainera profesionalak dira gaur egun. Erakusketa Algortan, Sopelan eta Gorlizen ikusi ahal izan da. Orain berriz, Kultur Leioan eskegiko da hilaren 7tik 22ra bitartean.



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
IMPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2

T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07

e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Axpuru kultur elkarte

Euskal kultura eta **euskara** bultzatzea **helburu** daukan kultur elkarte berria abian ipini dute Astrabuduko sei gaztek. Orain ekimen berri honetarako **lagun berrien bila** dabilta

Axpuru, ez badakizue ere, Astrabuduan, Arriagako muga, dagoen mendia da. Toponimo bera aukeratu dute Astrabuduko gazte ekintzaile hauek aurrerantzean euskal kulturaren alde behar egingo duen elkarteari izena emateko. *“Azken urte bi hauetan, ESAITekin batera, oso arrakastatsua izan den euskal selekzioen*

«Azken bi urteotan euskal selekzioen aldeko eguna antolatu dute»

aldeko eguna antolatu dugu”, azaldu digu Leire Calzada elkarte berriaren bultzatzaileetako batek. Egun hau antolatzen segituko dute, baina Axpuru elkartearen zeregina beste batzuk izango dira: “Astrabuduan egiten ziren eta gaur galduta dauden ekitaldi batzuk berreskuratu nahi ditugu, esaterako, jaietako nekazal azoka, edota, ibilaldi neurtua. Atzera antolatu nahi ditugu horiek”. Kultura kalera atera eta herriari bizitasun berri bat eman nahi diotela azpimarratu digu Leirek. “Eskarmentua badaukagu zeregin hauetan, baina herritar gehiago bildu nahi ditugu gureru, elkarlankidetzaz bultzatzea gure beste asmoetako bat ere badelako. Bazkideak eta egoitza lortu... hastapenetan baino ez gaude”, adierazi digu Leirek.



Elkarte berriaren bultzatzaileak lagunez inguraturik taldearen aurkezpen egunean: Txema Blanco, Leire Calzada, Aritz Garcia, Manu Martin eta Jorge Martin (David Sanchez falta da)

Azken euskal selekzioen aldeko egunean beharrean ibilitako lagunei euren lana eskertzeko eskaini zuten luntxean (hilak 22) Axpuru elkartearen asmoen berri eman zieten hara bildu ziren 60 lagunei. Harrera ezin hobea eduki zuen ekimen berri honek eta horregatik oso itxaropen tsu azaldu zaizkigu Astrabuduko gazte ekintzaile hauek. Eutsi goiari! m

Harremanetarako: 658 709 332



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
D E I T U !

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Udal zergak eta tasak datorren urterako batez beste %4 igotzea erabaki dute azken udalbatzan



Erandioko udaletxea

Urriaren 25ean egin zen udalbatzan hartu zen zergak eta tasak %4 igotzeko erabaki hau. Proposamenak agintean dauden EAJ eta EA alderdien babesak izan zuen, PSE eta Ezker Batua abstenitu ziren eta PP izan zen igoera honen aurka azaldu zen alderdi bakarra. Zergen igoera, besteak beste, enpresen jarduerari, ondasun higieiznei eta ibilgailuei ezarriko zaie 2006an. Tasa gehienak ere %4 igoko dituzte, zaramaren bilketa, zabaltze lizentziak edota udal garabiak eroandako ibilgailuei ipintzen zaizkienak, hain zuzen ere. Kiroldegia erabiltzeko bazkideek %1,4 gehiago ordaindu beharko dute datorren urtean,

gainerako igoerarekin alderatuz gero askoz gutxiago. Hala ere, ikastaroen prezioak %3,3 igoko dira.

Bestetik, eta berrikuntza moduan, udaletxean ezkontzeagatik 100 euro ko-bratzea aztertu zuten, baina oraingoz ez da neurri hau aplikatuko. Iaz 26 ezkontza egin ziren udaletxean eta hauek hileko lehenengo eta hirugarren zapatu eguerditan ospatzen dira. Ezkontzak gobernu batzordeko zinegotziek egiten dituzte, hala ere, gainerako alderdietako zinegotziek ere egin ditzakete egun horretarako propio alkateak eman dezakeen baimen berezi baten bidez. m

IPUIN LEHIAKETA ANTOLATU DU EUSKARA ZERBITZUAK

Erandioztar guztiek eta udalerriko ikastetxeren bateko ikasle direnek har dezakete parte Erandioko V. Ipuin lehiaketan lau maila desberdinetan: A maila, 8 urte artekoak; B maila, 9-10 urtekoak; D maila, 11-13 urtekoak; eta D maila, 14 urtetik gorakoak. Lanek euskaraz idatzitakoak izan behar dute eta posible bada makinaz, DIN-A4 formatoan, grapa barik eta 2 cm-ko markoa utzirik orrialde bakoitzean. Lanek sekula argitaratu bakoak eta gutxienez 6 orrialdetakoak izan behar dute. Partaide bakoitzak lan bi aurkez ditzake gehienez jota. Ipuinean, 1. orrialdean, izenburua eta egilearen adina idatzi behar dira. Gutunazal txiki batean, eta V. ipuin lehiaketa testuaren azpian, izenburua eta adina azaldu behar dira berriro, eta horren barruan egilearen datuak dauzkan orritxo bat sartu behar da. 3 sari egongo dira maila bakoitzeko eta sariok balio ezberdineko txartel trukagarriak dira, udalerriko saltokietan erabiltzekoak. Lanak azaroaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira.

gutuna

Ana Crespo

Erandio goikoan etxebizitza sozialik ez!

Ez horixe. Erandio Goikoan ez dago etxebizitza sozialik UK-k 88. zenbakian bestelakorik esan badu ere. Artikulu horretako hanka sartzeak nabarmenak dira eta azaltzera noa. Hasteko, izenburuan haxe zioen: "Etxebizitza Sozialak - Erandioko Udala abenduan hasiko da ematen Goikoako etxeak". Gezurra. Etxebizitza horiek ez dira inondik inora sozialak. Babes ofizialekoak dira gehienak eta batzuk libreak. Eta desberdintasun handia dago etxebizitza sozialen eta babes ofizialekoen artean: prezio bikoitza, irabazien inguruko irizpideak askoz zorrotzagoak eta abar.

Egia da Erandio Goikoan egon badagoela etxebizitza sozialak egiteko aukera, duela lau zapabost urte udalak horretarako lurra erosi zuelako. Garai hartan EAJ, EA eta Ezker Abertzaleak konpromisoa hartu zuten etxebizitza sozialak babes ofizialekoekin eta libreekin batera egiteko eremu horretan. Laurogei bat etxebizitza sozial egitea hitzartu zuten eta gehienak alokairuan emateko. Orain babes ofizialekoak eta libreak egin dituzte, baina oraindik ez dira etxebizitza sozialak egiten hasi.

Egindako ikerketek erakusten dute herrian 300 etxebizitza sozial baino gehiago behar direla ditugun beharrei erantzuteko, baina, dirudienez, agintean dauden EAJ eta EA alderdiek ez daukate inolako asmorik Erandion etxebizitza sozialak egiteko (beste herri askotan ere ezetz esango nuke).

Nik argi daukat gure herrian behar beharrezkoak direla etxebizitza sozialak, baina argi gera dadila Erandio Goikoan ez dagoela, oraingoz, etxebizitza sozialik. Eta udalean agintean dauden alderdien jarrera ikusita, herritarren presioa beharko da horrelakorik lortzeko. 4

UDALAK BABES
OFIZIALEKO 500
ETXEBIZITZA GEHIAGO
EGITEA BULTZATUKO DU

Sopelako udalak Eusko Jauriaritzako Etxebizitza Sailagaz batera herrian babes ofizialeko 500 etxebizitza gehiago egiteko proiektua egiten dabil. Etxebizitzok hedatze bidean dauden bi gunetan eraikitzea aztertzen dabil. Horrela, Ripa eta Abaro inguruetan eraikiko lirateke. Proiektua aurrera ateraz gero Sopelak dauzkan beharrak asetzeari laguntza litzatekeela uste dute bi administrazioek.

TAO-AREN AURKAKO
PLATAFORMAK
PROTESTAK EGITEN
JARRAITZEN DU

Sopelako TAOaren aurkako plataformak protesta ekitaldi bat egin zuen pasa den urriaren 21ean. Protesta hori bestelakoa izan zen aurrekoakaz konparatuz gero. Izan ere, antzerki lan txiki bat egin zuten non Inkisizio Santuak herriari gehiegi kobratu zion boteretsu batzuk epaitzen zituen. Antzerki lana plataformako kideek eta herriko boluntarioek egin zuten eta orotara 800 bat lagun bildu zituen udalari TAOaren aurka daudela gogorarazteko.

Protesta ekitaldiaren une bat



sopelana.net beriztatu dute

Ikusmen eta mugimendu urritasuna daukatenek programa baten bidez jasoko dute edukien berri



www.sopelana.net

Sopelako udaleko webguneak kale-izen-degia, trafikoa egoera, eguraldia, herriko berriak, etab. dauzka edukien artean. Dagoeneko eduki horiek jende guztiaren eskura daude, izan ere, Interneten murgiltzeko zailtasunak daukaten urritu fisikoei ere aukera daukate Udaleko webguneko edukia jasotzeko. Interneten Eguna zela-eta, Udalak bere web orria eskuragarriago egindako moldaketak martxan jarri zituen urriaren 25ean. Ikusmen urritasuna daukaten lagunek ONCEk bere bazkideei errazten dien programa berezi baten bidez izango dute webgunearen eduki desberdinen berri. Programa horrek testu idatziak ira-

kurtzen ditu eta itsuek edukiak entzun ahal izango dituzte. Mugimendu urritasuna daukenentzat, berriz, programa berri bat jarri dute webgunean nabigatzeko arratoiaz gain teklatura ere erabili ahal izateko. Berrikuntza horiekin datorren urtean ezarriko den Interneterako eskuragarritasunaren gaineko legegari aurreratu zaio Udala.

Bestalde, Sopelako udaleko webgune ofizialean egin dituzten aldaketa horiek web orriak edukiko dituen berrikuntzen lehenengo fasea da. Bigarren fase batean, edukiak beste modu batera antolatuko dituzte, batez ere turismoa eta herritarren partehartzea sustatzeko helburuarekin. m

Javier Hernandez > *Zirimarra* pintura elkarteko kidea

“Artearekiko zaletasuna eta herriarren partaidetza bultzatu nahi ditugu”



Bere lanak erakutsi berri ditu Hernandez Sopelan

Zirimarra elkarteak orain dela hiruzpalau urte sortu zuten Sopelan artea eta, batez ere, pintura gogokoa zeukaten lagun batzuek. “Herrian ezer gutxi zegoela ikusita hutsune hura betetzeko, eta gauzak antolatzeko elkartzeari erabaki genuen”, azaldu digu Javier Hernandez taldeko kideak. Gaur egun 80 bat kide dabilta Zirimarra elkartearen inguruan, “Sopelakoak eta Sopelatik kanpokoak, inguruko herrietako lagun asko ere bildu dira Zirimarrara”.

Beti ere, arteari lotutako makina bat jarduera bultzatzen dituzte Zirimarra elkarteak lagunek Sopelan, “batzuetan mendira joaten gara pintatzera, ikastaroak egiten ditugu, adituekin museotara bisita

gidatuak ere antolatzen ditugu, etab.” azaldu digu Hernandez jaunak. Gabonetarako lehiaketa ere antolatu dute eta gaia, jakina, Gabonak dira. Lehiaketaren irabazlearen lana postal batean argitaratuko dute Sertutxa tabernan elkartzeko ohitura daukaten Zirimarra elkarteok.

Hernandez Zirimarra elkarteak lehenakaria izateaz gain, Bizkaiko Elkarte Artistikoaren kidea ere bada. 1990 urteaz geroztik sari mordoa eskuratu du bere lanengatik, guztira 13 bat, eta horien artean Zirimarra elkarteak berak antolatzen duen Pintura saria dago. m

Harremanetarako: 94 406 55 19

LAIKAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneako menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

auri haitz
jan eta edan

4 bide
pinturak

RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ERTAMERIKAKO
HONDAMENDIRAKO DIRU
BILKETA ANTOLATU DU
UDALAK

Berangoko udalak laguntza eskatu die berangoztarrei Stan urakanak eragindako hondamendiari aurre egiteko dirua biltzeko; izan ere, Udalak kontu korronte bat zabaldu du bereziki horretarako. Horrela, batuko den diruarekin uholdeek eta sumendiek kaltetutakoei laguntza eman gura die. Laguntza hori Arco erakundeak Salvadorren daukan delegazioaren bitartez emango da, hain zuzen ere.

ONDASUN HIGIEZINEN
GAINEKO ZERGAN
HOBARIAK EMANGO
DITUZTE

Udalak udalerriko familia ugarietarako Ondasun Higiezin Zergan hobariak ematea onartu du. Hobariok %90ekoak izan daitezke, baina jasotzeko beharrezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen familia ugariaren titulua edukitzea. Eskariak egiteko epea azaroaren 30era arte egongo da zabalik. Bestalde, Udalak familia horiei %50eko beherapena ere egiten die Kultur Etxeak antolatzen dituen ikastaro edo tailer guztietan.




GALEA
ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12
Fax: 94 491 11 31

Carlos Matas > Lanius Elkarte Ornitologikoa

“Eskualdean dauzkagun gune naturalak babesten ahalegintzen gara”



Argazkian, Carlos Matas. Harremanetarako: 605 733 605

Bilbo eta Berango artean bizi da Carlos Matas ingeniaria. Lanbide hori duen arren natura eta, batez ere, hegaztiak izugarri maite ditu Carlosek. Horregatik gure bazter zigortu hauetan aldrebeskeriaren baten berri daukanean asko sufritzen du Carlosek. Laster 20 urte beteko dituen Lanius Elkarte Ornitologikoko kidea eta bultzatzailea da.

—Azaldu egiguzu Carlos, zer da Lanius?
—Naturarekiko maitasunak bultzatzen gaitu eta naturaren alde egiten dugu. Gure elkarteak hiru arlotan egiten du lan. Lehenengoa, arlo ludikoa deitzen duguna da, hau da, txoriak ikustera joateko txangoak, hitzaldiak etab. antolatzen ditugu. Bigarren arloa, arlo kontserbazionista litzateke. Dauzkagun gune naturalak babesten ahalegintzen gara eta horregatik beti ibiltzen gara erakundeekin borrokan. Gure hirugarren lan esparrua arlo zientifikoa da. Ikerketak egiten ditugu, hitzaldiak antolatu, txorien erroldak...
—Gure eskualdean zeintzuk dira bereziki zaindu beharreko bazterrak, edota beste modu batera esanda, zeintzuk ikusten dituzue arriskuan?
—Oraintxe bitan dauzkagu begiak jarrita.

Batetik, *La bola* izenez ezagutzen den Ariluze alboko hondartzatxoa babestu behar dela jakinarazi diegu erakunde publikoei. Txoko oso aberatsa da eta bere ezaugarriengatik bakarra eskualdean. Txori asko ibiltzen da han. Bestetik, Lamiakoko ibarra daukagu, batzuetan urez betetzen da eta horregatik da berezia. Inguru hori berean mantentzeko beharra arduradun politikoei jakinarazten gabilta.
—Zelan hartzen dituzte erakunde publikoek zuen eskakizunak?
—Sarritan nekagarria da. Erakunde bakoitzak besteari pasatzen dio ardura. Kostak aldundiaren ardura dela dio, aldundiak portu autonomoarena, besteak udal ardura dela dio... eta horrela ibiltzen gara askotan. Hala ere ez dugu etsiko.

“Itsaslabarren inguruan motordun ibilgailuak ikustean sutan jartzen naiz”

—Gure eskualdetik zehar zabiltzanean, zerk mintzen zaitu?
—Sutan jartzen naiz itsaslabarren inguruan motordun ibilgailuak ikusten ditudanean, quad eta horrelakoak. Gorrondatxe hondartzan dunak babesten dituen soka kentzen dutenean, etab. m

Eduardo Perez Avila > bitxigilea

“Jendea klasikoaren tradizioetik, urre hori eta diamante arruntetatik atera beharra dago”



Eduardo bitxigilea bere Plantziako dendan

Hogeita bi urte daramatza artisau honek bitxien munduan lan egiten; hala ere, urte eta erdi besterik ez da pasa Plentziako eliza alboko denda ireki zuenetik. *“Plentziara, batez ere, herri honen lasaitasunagatik etorri nintzen”*, azaldu digu Eduardo Perezek.

Eduardok gauza berriak sortzea du helburu eta, horrela, bitxi denda ohikoe-tan topatzen ez den hori aurkituko dugu bere lantegia eta aldi berean denda den horretan.

Bera ustez ez ditu gauza arraroak fabrikatzen, baina jakin badaki publikoa- rentzat gauza bereziak direla. *“Arraroa dena garestitasunarekin erlazionatzen da”*, adierazi digu. Materiala lortzeko modua, kolore berde, hori edota beltzezko diaman- teen balio altua, Australiatik ekartzen duen eta oso kalitate onekoa den perla, oso montura desberdinak, gizonezkoen- tzako bitxigintza... dira bere berezitasu-

nak. Arrazoi asko daude, beraz, bere sor- men artistikoaren garestitasuna eta arraro- tasuna nolabait ulertzeko.

Normalean, bezeroak berrogei urte ingurukoak izaten dira, gazteek ez dute- eta horrelako diru sarrerarik, ospakizun berezi baterako ez bada, non berritasuna

700 eta 8.000 euro artekoa da egiten dituen bitxien prezioa

eta figura klasikoetatik aldentzea bilatzen duten. Hala ere, Bizkaian, oraindik nagu- sitzen dena klasikoa dela azaldu digu: *“Jendea klasikoaren tradizioetik, urre hori eta diamante arruntetatik atera beharra dago”*.

Bereziak diren bitxi hauek Plentziako negozio honetan saltzeaz aparte, Eduar- dok Madril edotaartzelona hirietara eta hango azoketara bidaltzen ditu bitxiok. m



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

HIRITARREN ARRETARAKO ZERBITZUA ABIAN IPINIKO DUTE GORLIZEN

Gorlizko udalak zerbitzu berri honen bitartez hiritarrek udalean egin behar izaten dituzten tramite administratibo arrunt gehienak bideratu nahi ditu. Orain zerbitzu hau zelakoa izan behar duen jakiteko ikerketa agindu du Udalak eta horretarako 30.000 euro bideratu ditu. Ikerketa hurrengo hiru hilabeteotan egingo dute. Hala ere, hiritarren arretarako zerbitzua udaletxean bertan kokatuko dutela aurreratu dute agintariek.

URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEAREN VIII. IPUIN LEHIAKETA

Ipuin lehiaketa honetan mankomunitatean ikasten dauden edota bertokoak diren ume eta gazteek har dezakete parte. Lehiaketak bost maila dauzka: LHko 3. eta 4. mailak (2-3 orriko luzera); LHko 5. eta 6. mailak (2-5 orri); DBHko 1. eta 2. mailak (2-5 orri); DBH 3. eta 4. mailak (3-6 orri); eta 17-18 urte bitartekoak (4-7 orri). Lanok argitaratu bakoak izan behar dute, euskarazkoak eta alde bakar batetik idatziak (letra mota: “universal”, “arial” edo “times new roman”; puntua: 11 edo 12; lerro tarte: 1,5). Lanean ez da egilearen daturik jarri behar, datuok kartazal itxi batean sartu behar dira eta kartazalaren azalean lanaren izenburu bera idatzi. Lanok hilaren 9ra arte eman daitezke Euskara Zerbitzuan edota herrietako kultur etxeetan.

LEMOIZ

Sukalki lehiaketa arrakastatsua



Argazkian, epaile lanetan ibili ziren lagunak

Lemoizko Urrustiniena Kultur Alkartek antolatuta Bizkaiko Sukalki hirugarren lehiaketa egin zuten Armintzako portuaren inguruan hilaren 16an. Ia 4.000 lagun hurbildu ziren Armintzara domeka horretan eta guztira 82 koadrilek eman zuten izena. Antolatzaileak herriko gazte talde batekoak dira eta euren helburuen artean herriko giroa piztea ere badago. Horregatik oso pozik azaldu ziren lehiaketa gazte honi jendeak emandako

erantzunarekin, izan ere, Bizkaiko sukalki egilerik onenak elkartzea lortu zuten. Irabazlea, Mungiako Betiko Okela taldea izan zen eta sukaldariak Jose Benguria eta Joseba Ateka. Bigarren saria, Armintzako Zaloak eskuratu zuen, eta hirugarrena, Andrakako Andraka Goia taldeak. Epaimahaian, besteak beste, Ensanche jatetxearen nagusia den Kepa Landa edota Gaminiz jatetxeko Aitor Elizegi ibili ziren. m

Aza. 4 - 20

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Retrato de un escandalo universal de Derechos Humanos** Algortako erakusketa gela. Azaroaren 15era arte.
► **Udal euskaltegia: Hogei urte, hamaika argazki.** Erromoko erakusketa gela. Azaroaren 11ra arte.

LEIOA

► **Sk8UKn, Carlos Terreros.** Argazki erakusketa. Kultur Leioa. Anbigu Gunea. Azaroaren 7tik 22ra.
► **Euskal pilota herriz herri.** Kultur Leioa. Azaroaren 20ra arte.

PLENTZIA

► **Plentziako Perretxiko eta Itsaski Taldea** Argazki erakusketa. Goñi Portal. Azaroaren 1etik 15era.
► **Plentzia eta Mungialdea** Argazki erakusketa. Goñi Portal. azaroaren 16etik 30era.

ZINEMA

GETXO

► **Cinco condiciones.** Cinema paradiso. Getxo Antzokia. Azaroak 4, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.
► **Daltondarrak Lucky Luke.** Getxo Antzokia. Azaroak 6, igandea. 12:00/17:00/19:00. Sarrera: 1,90 euro.
► **Nuestra musica.** Cinema paradiso. Getxo Antzokia. Azaroak 11, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro
► **Los 4 fantasticos.** Haur zinea. Getxo Antzokian. Azaroak 13, igandea. 12:00/17:00/19:00. Sarrera: 1,90 euro.

LEIOA

► **Semen, una historia de amor.**

► **jazz kontzertua**

Donald Harrison saxojolea

New Orleans-en daude jazzaren sustraiak eta hantxe jaio zen hain zuzen ere Donald Harrison saxojole paregabea. Azken hogeitau urteotako saxojolerik ezagunetakoa da eta besteak beste, Art Blakey, Quincey Jones edota Herbie Hancock maisuen babesa jaso du. 15 diskotik gora grabatu ditu eta gaur egun munduko saxojolerik onenetakoa da. Beste datu bat, Ellis Marsalis handiaren ikaslea izan zen unibertsitatean. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan joko du hilaren 19an bere taldearekin batera. Sarrera 10 euro kostatzen da eta Getxoko kultur etxean eros daitezke.

• **Non:** Andres Isasi eskolan (Areeta) • **Noiz:** azaroak 19 • **Ordua:** 22:00

Zine komertziala. Auditorium. Azaroak 5, zapatua. 19:00 / 22:00. Azaroak 6 eta 7. 20:00. Sarrera: 3/4 euro.

► **Madagascar.** Haur zinema. Auditorium. Azaroak 6, igandea. 12:00/17:00. Sarrera: 3 euro.
► **Hierro 3** Zineforum. Auditorium. Azaroak 8, asteartea. 20:00. Sarrera: 2 euro.
► **Los 4 fantasticos.** Haur zinea. Auditorium. Azaroak 13, igandea. 12:00/19:00. Sarrera: 3 euro.
► **Cinderella Man.** Zine komertziala. Auditorium. Azaroak 12, zapatua.

19:00 eta 22:00. Azaroak 13, igandea. 20:00. Sarrera: 4 euro.

PLENTZIA

► **Belleza Prohibida.** Azaroak 11, barikua.
► **Be Cool.** Azaroak 18, barikua.

ANTZERKIA

GETXO

► **Sera que me quieres.** Totem taldea. “Emakume bideak” zikloa.

Getxo Antzokia. Azaroak 5, zapatua. Sarrerak: 3 euro.

MUSIKA

LEIOA

► **Bilboko Txistularien banda.** Auditorium. Azaroak 11, barikua. 20:30. Sarrera: 6 euro.

GETXO

XX. Udazkeneko Kontzertuak
► **Al Ayre Español.** Eduardo Lopez Banzo zuzendaria eta Carlos Mena kontratenorea. Getxo Antzokia. Azaroak 8, asteartea. 20:00. Sarrera: 3 euro.
► **Concerto.** Getxo Antzokia. Azaroak 9, eguaztena. 20:00. Sarrera: 3 euro.
► **Fine Arts Quartet.** Getxo Antzokia. Azaroak 10, eguena. 20:00. Sarrera: 3 euro.
► **Ilya Grubert (biolina) eta Brenno Ambrosini (piano).** Getxo Antzokia. Azaroak 11, barikua. 20:00. Sarrera: 3 euro.
► **Sinfonietta Ricercare orkestra, Euskal kantu Berriak.** Getxo Antzokian. Azaroak 12, zapatua. 20:00. Sarrera: 3 euro.

BESTEAK

LEIOA

► **XXVI. Eskulangintza Azoka.** Errekalde plaza. Azaroak 5 eta 6, zapatua eta domeka.

GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako kultur etxeko areto nagusian. Azaroak 11, barikua. 19:00.

PLENTZIA

► **Plentziako Ondare Historikoa.** Hitzaldia. Hizlaria: Maria Angeles Uriarte. Goñi Portal. Azaroak 25, barikua. 19:30.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Q V S

20 NIVERSARI
URTEURREN

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Plentziako txirlak

Gure eskualde zigortu honetan oraindik ere natura bitxiak eskaintzeko gauza da. Butroeko angulak dira seguru asko gogoangarrienak, baina Plentziako txirlak beste bitxi horietako batzuk ere badira. Jaki oso gozoa eta aldi berean urria da Plentziako txirla. Urteko azken hiru hilabeteetan baino ezin da hartu, hau da, urritik abendura bitartean. Itsasbeheran Plentziako itsasadarraren barruak astintzen dabilta egunotan txirlen zaleak ale preziatu hauen bila. 200 lagun inguru ibiltzen dira han. Zorte on!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Askotan, porlanak itoko gaituen sentsazioa daukagu. Edonora begiratu eta errepide zein etxeak barra-barra erai-
kitzen dabiltzala ikus dezakegu. Baina Uribe Kostaren zatirik handiena orlegia da oraindik ere, udalerrri gehienetan
askoz gehiago da-eta belardi edo baso modura gorde dena ingurune urbanoa baino. Momentuz behintzat. “Inguru
berde gehiago, berde gitxiago inguruan”, dio aspaldiko gerra-oihu batek. Hara, badaukagu inguru berderik: larregi
zehaztu barik “mendia” esaten diogun hori. Gehiena -edo zati handi bat behinik behin- pribatua da; ez dago beti
ondo zainduta, eta batzuetan hesiek bertatik ibiltzea eragozten dute. Gozamenerako beren-beregi prestatutako
berdeguneak -publikoak noski- askoz gitxiago dira, eta horientzat izango da gure arreta oraingoan.

Eskualde berdea

Gure parkeetatik paseoan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Legeak ezartzen duenez, herri guztiek eduki behar dituzte Gune Askeen Sistema Orokorrak. Izen luze horrek bere baitan gordetzen duena ez da guztiz zehatza, baina jeneralean “herriko parkea” deitzen diogun horregaz lotuta egoten da. Borja Gonzalez de Mendibil Barrikako Udaletxeko arkitektoak dioskunez, *“legediak ez du argi definitzen gune askeen sistemak zer diren; hala ere, baldintza batzuk dagoz ezarrita: ezin da bertan eraikinik egin, guneari berari zerbitzu emoteko helburuagaz ez bada”*. Hau da, bete ezin diren espazioak dira. Zertarako libre utzi? Hori da hain argi ez dagoena.

«Gune aske direlakoak bost metro koadro eduki behar dute biztanleko»

“Legeak ez du gune horietan ezer zehatz egitera behartzen”, dioskue Urdulizko Udaletxean. Baina horrek ez du esan gura ezer egiten ez denik. Jeneralean, zelan edo halan atontzen dira, herritarrek goza ditzaten. Aukera asko dagoz: mahaia, aulkiak, barbakoak, kirol-instalazioak eta, gehienetan, bedarra nongura. Erabileraren gaineko datuak lortzen ere ahalegindu gara, baina ezin. Hala ere, eta numero zehatzik ezan, erabilpena handia dela azpimarratu digu udal

agintari batek baino gehiagok. Izan ere, guztientzat dago lekua: legeak dioenez, herri bateko gune askeen sistemak biztanle bakoitzeko bost metro koadro eduki behar dute gitxienez. Borja Gonzalez de Mendibilen berbetan, *“udaletxe guztiok betetzen dugu hori, Foru Aldundiak hala dela egiaztatzen duelako”*. Egia esan, Aldundiak behatzen duena lurra kalifikatu dela baino ez da. Gero, lur hori eskuratu egin behar du Udaletxeak. Hau da, desjabetu.

Gune askeen sistema orokorrak sortzeko prozesua etenbakoa da, biztanle kopuruek ere gora egiten dutelako eten barik, eta he-

rritar barri bakoitzak bere bost metro koadroak behar dituelako, gitxienez. Kontuan hartu behar da herri batzuek biztanleria bikoiztea aurreikusten dutela datorren hamarkadan.

Erdigunean egon behar dira
Gune askeen sistemak ezin dira edonon egon. Lehen, arrunta ei zen udaletxe batek, legeak halako gune bat sortzera behartzen zuela ikusita, herriko mutur bat aukeratzea



Erandion dagoen Akarlanda parkean hartu ditugu argazki hauek guztiak



horretarako. Orain, berriz, gune askeak derigorrez egon behar dira erdigunean.

Parkea, beraz, etxe ondoan paratu digute, baina badagoz inongo erdigunetatik sano urrun dagozan berdeguneak. Uribe Kostan adibide ederra daukagu: Akarlanda, Erandion. Eta badator beste bat bidean. Bilbo Metropolitanoaren Lurralde Plan Partzialak

berau pribatu geratuko den (gaur egun pribatua da gehiena), ez eta eremuak zer ezaugarri edukiko duen. *“Plan berezia egingo da”*, dio udal teknikari batek, *“baina Artxandako parkeak ere plan berezia eduki behar zuen eta hor dago, geldi, inguru horregaz zer egin ez dakitela”*. Bizkaiko Foru Aldundia ez dator bat: *“Ez dagoela argi? LPParen funtzioa ez da*

«Galeatik Barrikarainoko kostaldea parkea izango dela aurreikusita dago»

(LPP) dioenez, Galea muturraren eta Barrikaren artean dagoen kostalde zatia parke metropolitanoa izango da. Baina udaletxe batzuek esan digutenez, parke hori ez dago ondo definituta, eta LPPak -orain amaitu da alegazio epea- ez du adierazten administrazioak lur hori eskuratu beharko duen ala

udaletxe bakoitzak zer egin behar duen zehaztea, leku bakoitzean, gitxi gonabehera, zer egongo den esatea baizik”. Parke metropolitanoaren kasuan, LPPak *“herriar guztien gozamenerako erabil litekeen”* ingurutzat jotzen du. Momentuz, beraz, ez dakigu zelakoa izango den parke hori. Nahiko berdea, seguruenik. m

Akarlanda, porlanetik ihes egiteko gunea

Azken urteotan, Bizkaiko Foru Aldundiak zabalgune natural ugari sortu du, *“naturan bertan aisialdi-guneak edukitzeko eskaera gero eta zabalagoari erantzuteko”*. Gehienetan, mendiak aukeratu dituzte zabalguneok kokatzeko, inoiz hondartza edo ibaietatik hurbil paratu dituzten arren. Aldundiaren webguneak emondako informazioaren arabera, 50 zabalgune dago Bizkaian, horietatik bakarra Uribe Kostan: Akarlanda, Erandion. Bera da,

«Akarlanda Bizkaiko bigarren zabalgune handiena eta bisitari gehien hartzen duenetako bat da»

gainera, Bizkaiko bigarren handiena (30 hektarea), eta bisitari gehien hartzen duenetako bat ere bai, kopuru zehatzik adierazi ez badigute ere. Akarlanda ez da natura hutsa. Mendira goazenean ere eroso egon gura dugulako beharbada, zerbitzu asko topa daiteke bertan. Mahai eta aulkiak, umeentzako jolas-parkea, tabernak, aparkalekuak, futbito eta saskibaloizelaiak... Gainera, bertako zuhaitz-espezieen gaineko informazioa emoten digute panel batzuek. Egun osoa bertan igarotzeko moduan dago gure “Central park”, eta halaxe egiten du jende askok aste-akabuetan. Akarlanda aukera polita duzu naturaz gozatzeko, ez horrenbeste bakardadeaz gozatzeko.





Beharraren onurak

Juan Luis Markaida

Horra hor zer topa dugun obren hondakin zikinen artean: kantzontzilo estu argiak daroazen morroi katxarroa! Morroi hau ez da telebistan ikus ditzakegun fitness egiten lorutako plastikozko gurputza daukaten mutil horien modukoa. Gure morroi beharginak, antza, bere gihar sendoak ez ditu inongo gimnasioan landu, karretila eta palagaz beharren baino.

[berbetan]

Sorkunde Rubio oreretarra gaztea da oraindik, baina urte mordoa egin ditu dagoeneko musika munduan. Artean adin txikikoa zela, Kashbad taldearen proposamena jaso -eta onartu- zuen, taldeari ahotsa ipintzeko; ordudanik bere izenaren laburduraz ezagutzen dugu, eta laburdura hori are ezagunago bihurtu zen bakarkako ibildeari ekitea erabaki zuenean. Orain dela hiru urte kaleratu zuen lehenengo diskoa, eta oraintsu ikusi du argia bigarrenak. Batak *Onna* dauka izena, besteak *Duna*. Sorkun ez da berbak alperrik erabiltzeko zalea, eta hori ederto igarri dugu elkarrizketa honetan. Ahots kaxkarrez erantzun dizkio astelehen goiz batez egin dizkiogun itaunei, asteburuko kontzertu pareak eta gauez gertatzen diren bestelako kontuek jota. Aфонia aitzakia izan zitekeen sekulako jarioa ez agertzeko, baina hori ez da benetako arrazoia, Sorkunen kantuetako berbak ere ekonomia horren menpekoak izateak frogatzen duenez. Hizkuntza arazorik ere bada tartean, baina kontua da Sorkunek ez duela berba gehiegirik behar gauza garrantzitsuak adierazteko; beharbada -eta berak aitortu digunez-, tripetatik sortzen zaizkiolako kantuak, sorkuntzaren izen bera daukan emakume honi.

Sorkun

Berba xumeak

Testua: **Unai Brea**

—28 urte daukazdu, baina denbora luzea egin duzu dagoeneko musika munduan...

—Hamazazpi urterekin hasi nintzen, Kashbad taldearekin, eta zazpi urte egon ginen gutxi gorabehera. Haren ostean, Fermin Muguruzarekin kolaboratzen ibili nintzen, eta aurretik, Kashbaden nenbילה, beste zenbait artistarekin ere kolaboratu nuen.

—Eta zergatik erabaki zenuen bakarka hastea?

—Bazegokidalako, nire ustez. Oso argi ikusi nuen. Oso garbi neukan zer motatako abestiak egin nahi nituen eta norekin jo nahi nuen, eta horrenbestez erabaki nuen Sorkun izena jartzea proiektuari.

—Lehenago egiten zenuenak ez zintuen horrenbeste asetzen, ala?

—Ez dauka zer ikusirik, momentu bakoi-tzean atsegin izan dudana eta ase nauena egin izan dut beti.

—Kashbadeko garaietara itzulita... Oker

ez banago, eurek eskaini zizuten bertan parte hartzea, ezta?

—Bai. Koadrillako lagunak ziren. Kashbad existitu egiten zen aurretik, gizonezko kantariekin beti ere. Inoiz abesten entzun ninduten, proba bat egitea proposatu zidaten eta...

—Hamazazpi urte baino ez zeneuzkan, baina animatu egin zinen...

—Bai. Eta bertan geratu nintzen, ja, ja...

“Lasai aritzea gusatzen zait, ez nuke urtero disko berri bat kaleratu nahi”

—Horrenbestez, halako ospea daukan rock mundu horretan sartu zinen: parranda asko eta abar. Betidanik esan da “sexua, drogak eta rokanrola”...

—Ez da hainbesterako. Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau, esan ohi denez.

—Zure bigarren diskoa *-Duna-* kaleratu berri duzu, lehenengoa argitaratu eta hi-

ru urtera. Ez da denbora luzeegia? Gauzak lasai egitea gustatzen zaizu beharbada...

—Hala da. Batetik bira egiten ibili naiz, eta bestetik, urte eta erdi eman dut diskoa konposatzen. Lasaitasunez, lan eginez baina presarik gabe. Egia esanda, ez nuke urtero disko berri bat kaleratu nahi.

—Eta diskoetxeek zer diote? Presioa jasaten duzue haiengandik?

—Ez, batere ez. Hala da nire kasuan behintzat.

—*Dunako* kanta guztiak zuk zeuk egingdakoak dira?

—Hara, nireak eta taldearenak. Hitz gehienak nireak dira, hiru izan ezik.

—Zure kanten berbak lañoak ei dira, laburrak eta errazak, korapilo handi bakoak...

—Gauza pilo bat adierazten duten poesia







Hondamendia eta gero

17 urteko gerratik atera berria zenean, 2004ko abenduaren 26an goizeko bederatzietan 20 metroko hiru olatu erraldoik Sri Lankako itsasbazterrak erabat suntsitu zituzten. 35.000 pertsona hil ziren eta oraindik gaur egun ere argi eta ur faltan dabilta leku askotan. Aurtengo abuztuan kamera aldean zeramala, bazter haiek ibili ditu Alvaro Gonzalez getxoztarrak. Tsunamiak eragindako kalteetan arakatu barik nahiago izan du bere argazkietan herri zigortu honen bizitza jasotzea. Hala ere, oso ezkor etorri zaigu eta tsunamiaren kalteak oraindik ere konpondu ez direnean gerra berriro piztuko den giroa sentitu du han. Zuzenbidean lizentziatua, prokuradore lanak egiten ditu Alvarok eta orain zientzia politikoetan nazioarteko kooperazioari buruzko doktoregoa prestatzen dabil. Irudiarekin harremana ere badauka Alvarok argazkiak ez eze bideoak ere egiten ditu-eta han-hemenka.

Argazkiak: **Alvaro Gonzalez**







zineeskola

Oskar Fernandez

Puntuazio zeinuak (I)

Zutabetxo honetan lantzean behin zinemaren hizkuntza eta literatura bata bestearekin alderatzen ditugu, bada honetan ere behartuta gaude horrelako zer edo zer egitera. Testu idatzietan normaltasun osoz puntuak, bi puntuak, komak, puntu eta koma... erabiltzen ditugu. Puntuazio zeinu hauen erabilera testu idatzia ulergarria izateko ezinbestekoa da. Beraz, adierazi nahi ditugun ideiak ahalik eta argien komunikatzeko ondo erabili behar ditugu aipatutako baliabideak. Zinemagintzan antzeko zerbait jazotzen da. Testu hauetan esaldiak irudi katea bihurtzen dira eta, jakina, zuzendariak ikusleei ekintzak noiz amaitzen eta hasten diren adierazi behar die. Horrexegatik puntuazio zeinuak zineman ere ezinbestekoak dira, baina gaur egun eta aspalditik bat baino ez da erabiltzen: ebaketa zuzena. Baina honen arrazoiak hurrengo batean ikusiko dugu. Orain, ikus-entzunezko lengoaiak dituen aukerak azalduko ditugu. Hizkuntza idatzian denbora igaro dela edo narrazioak beste leku batera eramaten gaituela adieraztea erraza da: lau urte pasatu ziren..., Toronto hirian bere begiak zabaldu zituenean... Zinemagintzan hau egitea ezinezkoa denez puntuazio zeinuak erabili behar dira nahitaez gauza berdina adierazi ahal izateko. Hortaz, baliabide hauen bidez bi gauza adierazten dira: denbora eta espazioaren aldaketa. Zinemaren historiaren hasieran, aipatutako bi gauza horiek aldatzen zirela adierazteko eta ikusleek istorioak kontatzen zuena ahalik eta hoberen ulertzeko “fundido en negro” deitutako baliabidea asko eta asko erabiltzen zuten. 4

Aupa Etxebeste!

gorenean 54.000 ikuslek aupatu dute dagoeneko Asier Altunaren eta Telmo Esnalen film luzea

Txotx (1996), 40 Ezetz (1999) eta Topeka (2002) film laburrak erein zituzten Asier Altunak eta Telmo Esnalek pantaila handirako bidean. Aurtengorako hazia, ordea, delikatuagoa zen: orain dela 13 urte landu barik zegoen euskal zinemaren ortu mortuan, sasi guztien artetik, euskarazko film luzeak hazi behar zuen. Eta sano osasuntsu egin du gora *Aupa Etxebeste!* pelikulak: iraila amaieran Donostiako Zinemaldian estreinatu zenetik 54.000 bat ikusle izan ei ditu. Irusoin eta Alokatu produktoreek ekoitzitako, Bartonfilmsek banatutako eta Euskal Telebista, Eusko Jaurlaritza, Canal Plus eta Cinemaniak diruz lagundutako filmak 1.200.000 euro inguru zeuzkan hazia, laia, goldea, baserritarren izerdia... ordaintzeko. Diotenez, produkzio gastuak

«Euskarazko azken filma orain dela 13 urte egin zen»

berdintzeko bakarrik *Aupa Etxebeste* ikusterera 40.000 lagun hurreratu behar ziren. Azkenengo datuen arabera, beraz, Etxebestarren uzta “onuragarria”, edo gutxienez galera bakoa, izan dela esan daiteke. *Aupa Etxebeste!*-ren aurrekaria aurki-



Argazkian, Iban Garate aktorea

tzeko 13 urte egin behar dira atzera, hau da, euskarazko azken aurreko film luzea *Offeko maitasuna* izan zen. 1992an Koldo Izagirrek zuzendutako film hura 26.961 lagunek ikusi ei zuten, horren aurrekoa berriz, *Kareletik* (Anjel Lertxundi, 1987) 11.516 zinemazalek. Etxebestetarren arrakastari men eginez, ea euskal zinemaren lur idorreko haziak apurka ernetzea ikusteko aukera daukagun aurrerantzean. m

Ez galdu > The Five Obstructions

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: azaroak 4, barikua • Ordua: 22:00 • Cinema Paradiso



Film honen atzean Danimarkako zuzendaririk ospetsuena eta seguru aski munduko ezagunetarikoa bat dago: Lars von Trier. Fikziozko dokumentalaren ideia orokorra berari bururatu zitzaion eta zati bat zuzendu zuen, baita aktorearen lana egin ere. Von Trier-ekin batera, dokumental honen zuzendari eta gidollari Jorgen Leth Danimarkako zuzendari emankorra dugu, hogeita hamar film baino gehiago zuzendu dituenena. Istorio hau 1967an egindako film labur batean oinarritzen da. Istorio labur horrek, Gizaki perfektua, pertsonen portaera aztertzen zuen. Istorio honi Lars von Trier-ek bost baldintza jarri zizkion eta luzemetraia bilakatu zuen. 2003an, Valladolideko Zinemaldian aurkeztu zuten filma eta urte berean Europako Zinemaren Sarietako dokumentalik onenetarako hautagaia izan zen.

Orioko bardoaren azkena

Zuzeneko disko hau Benito Lertxundiren ibilbide oparoaren errepaso ezin hobea da



Argazkian, Benito Lertxundi

Benito Lertxundik, Euskal Herriko kantari enblematikoenetakoa, bere azkenengo lana kaleratu berri du: *40 urtez ikasten egonak-zuzenean* disko bikoitza. Benitoren ibilbidea luzea eta sakona da, 40 urte eman ditu musikaren munduan, belaunaldi desberdinek kantatu dituzte bere abestiak, eta Elkar Argitaletxearekin ateratako azken lan hau bere ibilbide oparo horren errepaso ezin hobea da.

Hala ere, nobedaderik ere badakar diskoak; izan ere, harrigarria dirudien arren zuzenean grabatutako Benitoren lehenengo diskoa da. 2005eko martxoaren 3an Gernikako Lizeo Aretoan eta martxoaren 11n Tolosako Leidor Zinean zuzenean grabatu zuen diskoa oraingo taldekideekin batera: Juan txo Zeberio, Pello Ramorez, Angel Unzu, Olatz Zugasti, Fernando Ederra, Kutxo Otxoa eta Jose Mari Irastortza, besteak beste. Baina horrez gain, zuzeneko soinua eta lilura bildu dituen disko honetan abesti berri bi sartu ditu: “Itsasoari begira” eta Olatz Zugastiren “Itoitz”. m

www.lertxundi.net

diskoak

Sueña la Alhambra Enrique Morente



Luxuzko kolaboratzaileekin inguratu da flamenkoaren maisu handia. Besteak beste Tomatito, Juan Habichuela, Pat Metheny edota Khaled izan dira Morenterekin estudioan disko hau egiteko. Tradizioetik banguardiara doazen 10 abesti ederrez osatu du Morentek bere azken lan hunkigarri hau. Aipagarria ere bada; Morente bera produkzio musikala osoaz arduratu da.

El hombre invisible Kiko Veneno V2 Records



Independentziaren bidea hartu du Kiko Venenok eta bere diskoetxe propioa sortu eta gero bere azken lana ezagutzera eman du: *El hombre invisible*. Bost urteko isilune luzeari amaiera eman dio horrela *Lobo Lopez*, *Joselito*, *Memphis blues* edota *En un Mercedes blanco* kanta gogoangarrien sortzaileak. Era askotako eritmodun 14 kanta berri dakarzkigu Venenok oraingoan. Merez du.

The Solanos The Solanos Metak



Xabi Solano (triki), Oskar Benas (gitarra), biak ere Fermin Muguruzarekin hara eta hona ibiliak (lehen Kontabandaren Komunikazioa tourrean eta bigarrena Fermin Muguruza Dub Manifest taldearekin), gehi Sergio (Joxe Ripiau taldeko bateria jolea), Egoitz Drogas baxuan eta Saizar perkusio eta koroetan osatzen dute deskribaezina den boskote hau. Punk izpiritua, sus-traiak eta dantza lau haizeetara.

Agur >

Kike Turmix



Kike Turmix musikariak utzi egin gaitu gibelego minbiziak jota. Movidá Madrileña garaietan punk musika hedatzen ibili zen eta horretan jarraitu zuen Pleasure Fuckers taldeko buru bezala bai kontzertuak bai

jaialdiak antolatzen. Underground munduan zebilen arren, Eskandinaviako rock taldeak sartu zituen Estatuan. Euskal Herrian jaiotako eta Athleticen zale amorratua zen artista hau Madrildo Malasaña auzoko erreferentea izan da urte askoan zehar, eta hantxe ibiltzen zen azkenaldian auzoko taberna enblematikoenetan musika jartzen.

aldizkaria >

Entzun berria

Musikaren gaineko euskal aldizkariaren 45. alea kaleratu berri dute. Betiko moduan hemengo eta atzerriko taldeen eta musikaren berriak dakartza. Gure taldeei dagokienez, Berri txarrak taldearen disko berria da protagonista eta horrez gain Makala, Señor No, Sorkun, MCDren erreportajea, etab. dakar. Atzerriko taldeei dagokienez, Australiako Celibate Rifles taldeari egindako elkarrizketa da aipagarriena. Amaitzeko, gogoratu 6 ale ateratzen dituztela urtean eta harpidetzak 15 euro balio duela.

www.entzun.com



**LEHEN,
ORAIN
ETA BETI**

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62
Telletxe 15 • T: 460 42 44
ALGORTA

[liburuak]

Saria Getxora

Ramiro Pinilla idazle getxoztarak eskuratu du gaztelarazko **Euskadi Literatura** saria

Urtea ez da joan UK-ko orrialdeetan Ramiro Pinilla idazleari egindako elkar-
rriketa plazaratu zenetik. Orduan, 30
urte ixilean baina ez alferrean eman oste-
an, Pinillaren "itzulera" zen albiste.
Azken 18 urtean jaio, umetu eta heldu-
tako lana aurkeztu zuen 81 urteko idaz-
leak. *Verdes valles, colinas rojas* izenpean
2.500 orrialdeko trilogia sortu du Ge-
txoko idazleak. *La tierra convulsa* (Tus-
quets) izenburua dauka hiru liburukieta-
ko lehenengoak, eta *Los cuerpos desnudos*
laster kaleratuko den bigarrenak.

**«14.000 euro eta itzulpena
egiten laguntzeko beste
3.500 eman dizkiote»**

Horren harira da Ramiro Pinilla
(Bilbo, 1923) berriro ere orrialdeotako
protagonista. Izan ere, Pinillaren liburua
aukeratu dute aurtengo Gaztelarazko
Euskadi Literatura saridun. "*Pozik eta
harrituta*" jaso badu ere, ez da Pinillak
eskuratzen duen lehenengo saria: 1960an
Nadal saria eman zioten *Las hormigas cie-
gas* liburuarekin eta Planeta sariketako
azken hautagaien artean izan zen 1972an
Seno lanarekin. Alabaina, garai haiek ez
ziren hain gozoak izan Pinillarentzat.



Argazkian, Ramiro Pinilla

18 urteotan *Verdes valles, colinas rojas*
trilogia idazten jarduteaz batera beste bi ele-
berri labur sortu dituela ere aitortu zigun
Pinillak orain ia urtebete: *15 años* eta *Hue-
sos*, horrez gain beste hiru eleberritxo ere
hasita zituela, eta "*idazteko oraindik sasoi-
an*" dagoela esan zigun. ^m

liburuak



Mutuaren hitzak
Hasier Etxeberria
Susaa

Damian Arruti da *Mutuaren hitzak* nobelako protagonista, *Eulien bazka* nobelako huraxe bera. Atsedean hartzera eta zorion bila joan da Baztanera, lagun pintore baten etxera... baina beti bada katramilarik Damianen inguruan; Senpe zaharraren heriotza, adibidez.



Dragoien orroa
Fernando Morillo
Elkar

Orain dela milaka urte azken herensugea akabatzeko asmoz elkartu dira basajaunak, jentilak, gizotsoa... Gure egunetara etorrita, gaua mendian akanpatuta pasatzeko asmoa du gaztekoadrila batek, baina neska-mutil horiek ezin igarri zer ezkututzen den lurpean...

"GURE IRRATIA" BIDE GURUTZEAN!!

Lapurdiko Herri Irratiak bere 23 urteko ixtorian

aldaketa nagusia biziko du aurtten:

lokal berri bat eraikitzaera doa

eta zure laguntza baitezpadakoa du.

GURE ERRONKA:
EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

**GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPERA DAUKA BIHAR EUSKARA BIZI DADIN
LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN**

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako, eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Hermitarren sustengueren jasotzeko:

-Ipar Euskal Herria: Crédit Mutuel: 15999 02277 00050614940 64
-Hego Euskal herria: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 81 0590071330

Gure Lokala



Ana Lopez Asensio > Leioako Kultur Saileko zuzendaria

“Jendea egunero Kultur Leioara etortzeko ohitura sortzea da gure erronketako bat”



Argazkian, Ana Lopez Asensio

Ana Lopez Asensio Leioan jaio zen, baina Getxon emon ditu urte gehien, eta Gueñesen bizi da orain. Hala ere, Leioa daroa bihotzean. Herriko historiaz liburu bat plazaratu zuen orain dela urte batzuk, eta gaur egun Kultur Saileko arduraduna da. “*Lan handia baina polita*” ematen dio horrek, auzoetako kulturgune guztiak eta, batez ere, urtetebe egin duen Kultur Leioa gune nagusia koordinatu behar ditu eta.

—Kultur Leioa proiektu handigura da...

—Bai, badaramagu urte bat, eta hiru erronka azpimarratuko nituzke. Lehenengoa, ekipamendua martxan jartzea; oso lan handia izan da, polita baina oso handia. Bigarrena, eskaintzaren eta ekipamenduaren aldetik Uribe Kostan eta Bilbo Handian kokatzea. Leioan orain dela urte asko egiten dira oso kalitate oneko programazioak, baina ekipamendu honekin gauzak hirukoiztu egin dira, gutxi gorabehera.

—Hiru erronka esan duzu. Zein da hiru-

garrena?

—Bueno, ekipamendua lortuta daukagu dagoeneko, eta eskaintzaren aldetik gero eta gehiago agertzen gara komunikabideetan. Horrek esan nahi du gure eskaintza nabaria dela, eta jendea, gutxika-gutxika, hurbiltzen ari dela. Hori da hirugarren erronka -eta asko kostatuko dela uste dut-, jendea Kultur Leioara egunero etortzeko ohitura sortzea. —Alboan Getxo daukazue, eta han sekulako kultur programazioa edukiten dute. Is-

pilua da zuentzat?

—Bai, baina uste dut bakoitzak bere publikoa daukala. Guk Leioan ere badaukagu Getxoko publikoa.

—Kulturaren inguruko betiko eztabaida da: herri kultura edo norbaitek diseinatutakoa, herriaren partehartze barik... Zelan jokatzun duzue horri dagokionez?

—Egunero ahalegintzen gara jendeak parte har dezan. Gauza batzuk beti egoten dira programazioan (antzerkia, esaterako), eta normalean badakizu zer gustatzen zaion jendeari. Eta beste programa batzuetan -ia guztietan- jendearen iritzia jasotzen saiatzen ga-

«Jendearen proposamenak onartzen ditugu, eta progamazioari gehitzen saiatzen gara»

ra. Proposamenak onartzen ditugu eta saiatu egiten gara urtez urte proposamen guztiak, edo ia, programazioari gehitzen.

—Udaletxeetan aurrekontuak egitean, sail bakoitzak berea eskatuko du, jakina. Kultura izaten da kontuan hartzen den azkena?

—Leioako Udalan ez da azkena, eta Kultur Leioa ikustea besterik ez daukazu horretaz konturatzeko. Badakigu lehenengo urtea dela, eta urteak pasa ahala eutsi egin beharko zaioala, batez ere kalitateari. Zaila da, baina saiatu egiten gara.

—Leioako historiaren gaineko liburua idatzi zenuen, eta Historian lizentziatua zara hain zuzen. Jendearen gogoan, beharbada, Ana Lopez historian aditua dela geratu da... Segitzen duzu arlo horretan lanean?

—Beno, aditua... Liburu bat idatzi dut, bai, baina aditua zarela esatea arriskutsua da. Lizentziatua naizela esateaz, nahiko. Eta bai, segitzen dut historia arakatzen. Leioako historia asko gustatzen zait. Leioako argazki artxiboa jarri genuen martxan, eta oraindik nabil horretan lanean. m

Esakere > “Begi handiaok euki gose baño”



Gose garanen yanari duzti da gitxi, dana da txiker, meloi bet keriza da gure begitera, eta ollasko eder bat, artatxori. Gose garanen agotik barik begitetik kabuten daku dana. Ase garanen oster, tripe betetute eta handitute deku, eta sama estu. Ordun artagaro bat talo oso lez da, eta sardiñatxu bet, atune. Ordun ezteku hainbeste lekuri ez agoan, ez begiten. Sarri begiten kabuten daku gehiau tripen baiño.

Esakera hau Iñaki Gamindek baturiko da, eta beran "Urdulizeko berbak eta bizimodu" liburun topako dozue.

Gureberbakere67

ESAKERA ZAHAR BATZUK

Testua: Xabi Bilbao

Hagiñe dabillenen sabela poz: orain dala aste batzuk honetan orriotan bertan komenta gendun esakeratxu horrek ederto erakusten dau zein dan poztasun iturri nagosi bet, batez bere euskaldunontzako. R.M. Azkuen *Euskalerrriaren Yakintza* behar handin topako dozue, bai esakera hori eta bai gorputzeko atalak irudimenagaz aitetuten daudezen gehiago. Hemen doaz batzuk:

- *Arrausi luzea, logurea edo gosea.*
- *Ardao gozoak lau begi ta oiñik ez.*
- *Arpegiak arpegia austen dau.* (Hau da, zeozeri edo nonori aurre egiteko, arpegi emote da onena).
- *Hatza bada, eskua esango dau.* (Batzuk jokere dauke gauzak direzena baiño gehiago aumentateko, "exagerateko").
- *Begiak buruan yakitunak eta eroak oinetan.*
- *Bihotzean dagoana miñera urten.*
- *Bihotzaren giltza miña.*
- *Bistatik urrun, bihotzetik urrun.*
- *Bururik ez ta txapela nahi.* (Batzuk asko, lar, gure daude, behar edo merezi barik).
- *Eskurean (eskutik) ahora okelea galdu doa.*
- *Ezer ez, begirako ona da, sabelerako ez.*
- *Non gogoa, han zankoa.* (Halan esaten da beti gustukoa dekona harrapatzen daunen ganera).
- *Ukondoa urre dago, baiña ezin munik egin.*

Yateko kontukez hasi gara eta bardin amaituko dogu: danok pozik yaten dogu nonogaz alkartute, beste nonor mahaien lagun dogule... baia ondiño pozago lagunek yateko gozotxu badakar:

- *Badaukazu zeugaz yango dozu neugaz!*

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARBK?



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Amanita

caesarea

Perretxikoen sasoian bete betean gauden honetan *amanita caesarea* ekarri nahi nuen gogora, niri izugarri gustatzen zait eta. Perretxiko ederra da, kolore laranja eta hori alaiak dituena, bene-benetan ikusgarria da. Mendian aleren bat aurkitzen dudanean beti hunkitzen naiz. *Kuleto, arraultzeko* izenekin ere ezagutzen da baina gurean *gorringo* deitzen diogu euskaldunok. Oso zapore fina dauka, eta arraineekin konparazioa eginez, lupina dakarkit gogora. Hain zapore fina daukanez ez da komenigarria, ezta berakatzarekin ere kozinatzea. Xafla finetan ebaki eta zartaginean, gurina eta oliba olio apur batekin, buelta eta buelta egitea nahikoa da. Nahi izanez gero perrexil apur ere bota, baina besterik ez. Gordinik ere oso gozoa da eta, esaterako, entsaledetarako oso egokia da. ^m

osagaiak

gorringo aleak • gurina • oliba olio • gatz • perrexila



itsaso arana / jolastokikoa

Sauvignon

blanc

Burdeos en eta Loira aranean gehien lantzen den mahatsa da *sauvignon blanc*. Han du-eta jatorria mahats zuri honek. Kalitate oso handikoa da, fruitu txikiak ematen dituena eta ontzen direnean kolore urreztatua hartzen dutenak. Asko zabaldu da bere laborea munduan zehar, izan ere, oso ondo egokitzen da klima desberdinetara. Argentinan, Txilen, Uruguain, Kaliforniako kostaldeko arantetan edota Italian arrunta da *sauvignon blanc*. Hala ere, munduan mahats honekin Zelanda Berrian egindako ardaoak dira gehien estimatzen direnak. Estatu espaniarrean, Rueda jatorri izendapenak hartzen duen lur eremuan asko landatu da, eta neurri txikiagoan, Katalunian.

Mahats aromatikoa da, indartsua, gogora fruitu tropikalak ekartzen dituena, lore ikutu arin bat ere badaukana. Oso atsegina da eta ematen dituen ardaoak oso erraz edaten dira. ^m



The piper`s irish pub

Atzerriko garagardoak barra-barra etxeko betiko sukaldaritzarekin batera



Argazkian, Asier Mondragon, Daniela Opprisor eta Roberto del Fresno

Historia luzea dauka Algortako Kasinoaren alboan dagoen taberna honek. Lehen *Aritza* izena zuen eta gaur egun ere oraindino horrela deitzen diote bezero zaharrek. Roberto del Fresnok eta Asier Mondragonek orain dela lau bat urte hartu zuten tabernaren ardura eta irlandar erako pub bihurtu zuten. *“Aitzindariak izan ginen herrian atzerriko garagardoak ekartzen, inguruan ez zegoen horrelako eskaintzarik”*. Belgikakoak, Irlandakoak... edari apartsu honen nazioarteko markarik onenak dasta daitezke The piper´s-en.

Bestalde, gozo edateaz gain, ederto jan daiteke taberna honetan. Izan ere, eguneko menu zaindua ematen dute. Robertori menu hau zelakoa den definitzeko eskatu diogu eta hauxe erantzun digu: *“Etxeko betiko sukaldaritzaz mimoz landua”*. Bazkari hauek prestatzen sukaldean Daniela, Maria eta Debora dabilta, *“ederto moldatzen gara denok, familia moduko bat gara; gainera, esan behar dut langile bikainak direla eta plateraz aparte, itzelezko postreak egiten badakitela, beste inon nekez topa daitezkeenak”*. Gatzatu tarta, flanezko tarta... irudimen handiko gozoki ikaragarriak lantzen dituzte andrazko hauek.

Baina hau ez da The piper´s-en eskaintza guztia. Gauetz ere tragoa hartzeko giro ederra egoten da han eta, gainera, lantzean behin jaia antolatzen dituzte, azkena, Halloween jaia. ^m

THE PIPER'S
Basagoiti, 47 - Algorta
T.: 94 491 11 85

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asador



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nornberaren gus-tura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



VIEJO

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Jurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93



gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO







350^{M²}

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

[horoskopoa]

URA  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Egunez ere gautxoria zu! Eta ez zara konturatzen gauetz izarrek gordetzen dituzten sekretuak egunez. <i>Eguzki</i> amandreak denak begibistan ipintzen dituela. Gero atsoak zutaz okeresaka dabiltzala-eta kexu zara! Badakizu, hurrengoan izarpean ibili!	OTSOA  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Mundua ortzadarra da zuretzako, baita negu gorrian ere. Arazoen aurpegian iribarrea margozten badakizu, eta ez iribarre zuria! Denak zu lakoak balira... udaberriz jantziko genuke urtea! Askotan ez gara konturatzen alboan daukagunen botere magikoaz!	ADARRA  (Otsailak 19 martxoak 20) Jendearen aurrean berba egitea ez daukazu lar gogoko, lotsati xamarra zara horrelako eginbeharretarako. Baina zer esan badaukazu eta inguruko asko zeure berbajarioa entzuteko zain daude. Lotsa da aurrera egiten uzten ez zaituen balazta.
AITZURRA  (Martxoak 21 apirilak 19) Marmarrean, xuxxu-muxuka, barbaro... beti, herrian nor den nor duda barik zeuk badakizu. Lagunek beti jotzen dute zugana izen bati aurpegi ipini ezin diotenean. Ikasketetarako hain iaioa bazina, sikieran! Ez daukazu erremediorik!	HOSTOA  (Apirilak 20 maiatzak 19) Zelan izan liteke pertsona hain ardurabako eta ganorabakoa? Aizu, bada sasioa formal ibiltzeko! Adinean gora zoaz eta oraindino nerabezaroko zoramen haizea darabilzu buruan! Egunen batean (ez oso urrun) urakan-haize horrek galbidera eroango zaitu!	EGUZKIA  (Maiatzak 20 ekainak 18) Ze ondo sentitzen zaren lagunartean! Exxera? "Ezta pentsa berez". Gainera, etxerako bidela eta logelako atea aurkitzeko lanak edukiko dituzula zalantzarik ez daukagu. Ixaron eguna argitu arte ia ordurako iparra non dagoen igartzen duzun!
GARIA  (Ekainak 19 uztailak 18) Bere begiek zureak bakarrik ikus dezaketen mementuagaz ametsetan, izer lodia ferekatzeko zain, sama leuna musukatzeko irrikitan, gogoak noiz astuko ixaroten. Baina, hartu kontu: "Haragiaren plazerak beti dira plazer gose". Betekadak ez dira onak!	LASTOA  (Uztailak 19 abuztuak 17) Azken boladan proposatzen dituzun ideia eta txangoek ez daukate arrakastarik koadrilakoen artean. Orain arte zu izan zara taldean, gogoak noiz astuko ixaroten. Baina, heldu zaizu, eta behingoz burukomin barik gozatzekoa. Lasaitu eta aprobetxatu!	IRATZEA  (Abuztuak 18 irailak 16) Gurasoak gainetik ezin kendurik zabilta, asko maite zaituztelako eta gustura dabilta zuzaz batera gauzak egiten. Ostera, ahal bezain pronto esan beharko diezu kordela apur bat lasaitzeko, bestela ez dira inoiz ere aitite-amama izango!
META  (Irailak 17 urriak 16) Dagoeneko ez daukazu denborarik Olentzero konbentitzeko ikatza ekar ez diezazu. Hemendik aurrera, zintzo jokatuko duzula, gezur gehiago ez duzula esango... Gabonak hur daude eta urteko 3/4ak pekatuan bizi ondoren, horrenbestez bekatu egiten jarraitu!	HAZIA  (Urriak 17 azaroak 15) Mari kexati! Oraingoan zer da? urte beltzaren prezioa, arrainarena, arroparena... Horrek guztiak badauka konponbiderik: garraio publikoa erabili, arrain izardua eta merkea ere bada, iazko arropa oraindik ere jantz zenezake...!	NEGUA  (Azaroak 16 abenduak 20) Talde horren disko berria behin eta berriz ipintzen duzu, hasi eta amaitu, amaitu eta hasi, amaiera bako zurrumbiloan. Amak ere dagoeneko badakizki kantuen letra guztiak! Besterik ezean, ipini itzazu entzungailuak ingurukoak ez nazkatzeko!



mungia


oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[komikia]



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortzietako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

V	I	A	V	I	R	H	O	Z
O	L	M	E	T	A	P	A	E
D	I	R	A	U	A	U	A	O
V	A	R	A	T	I	Z	O	
V	U	T	A	K	I	Z	I	K
S	A	Z	E	T	E	G	I	E
T	O	A	B	I	N	A	T	R
V	N	E	T	R	A	S	A	S
K	N	O	Z	I	G	A	O	L
N	U	G	V	I	L	A	Z	B

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Oronoz herrixkakoa
- Kirolari polemikoa
- Telebistan ere ibili da lanean

> Aurrekoaren erantzuna: Iban Garate
> Irabazlea: **Luis Berasategi (Durango)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Zuri Haitz
Jatetxe vegetarianoa



Sertutxa 4, *Sopela*
Telf. erreserbak: 645 732 991

TERESA MARTINEZ DE GOÑIK UTZITAKO ARGAZKIA

Algortako San Inazio eskolakoak, 1977

Gaur egun 42 urte dauzkate goiko argazkian ikusten dituzuen lagunak, hau da, argazkia egin zitzaizenean 14 urteren bueltan zeuden gehienak. Algortako San Inazio eskolan ikasten zuten urte gatazkatsu haietan eta gehienak auzokoak ziren, Algorta eta Neguri ingurukoak. Francisco Javier Peña irakasleak urte hartan ikastetxeko klase guztiei argazki bana egin zien, goikoa argazki haietako bat duzue. Gazteak 8. mailan zeuden, hau da, institutura Batxilergoa ikastera joan aurreko urtean zebiltzan. m

Zutunik: Mertxe Blanco, Begoña Loza, Pedro Amondaraiz, Zulema, Carmen Muñoz, Teresa Martinez de Goñi, (?), Santi Saez, Jose Fernandez (GB), Felix Molinero, Jon Iriondo, Carmen Herrero, Fausto Bilbao, Nieves Sanz, Julen Menendez, Inmaculada de la Peña, Angelines Rubio, Lourdes Mardaras, Kontxi Etxebarria.

Makurtuta: Neftali Cuadrado *Talin*, Martina Blanco, Jose Antonio *Pana*, Carlos Blanco, Pilar, Roberto Arias, Antonio Perez, Carmen Almagro, Ramon Muñoz, Jose Antonio Santos.

cianoplan
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

- Imprimatze eta plano kopiak
- Karteak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- ermarketak



IÑIGO MUGURUZA > musikaria

“Nire azken erokeria besoetan daukadan alabatxoa da”



- Defini ezazu zeure burua berba bitan?**
Bizizalea.
- Zein animaliazagaz zatoz bat?**
Katua.
- Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?**
El Principito mitikoa adibidez.
- Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**
Nik ez nuke egingo pertsonaiaren papera, (jajaja) ez dut erridikulua egiteko balio...
- Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**
Salvador Allende, Txileko lehendakaria izan zena.
- Zure jakirik gogokoera.**
Sagardotegiko txuletoia.
- Aitor dezakezun bizio bat.**
Bizio bat... Sexua esango dut.
- Oporretan joateko lekurik aproposena.** Brasil.
- Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**
Gauza guztiak barkatzen saiatzen naiz.
- Ezin zaitezke bizi...**
Maitasun barik, erromantiko-erromantikoa...
- Ohitura txarren bat...**
Perfekzionismoa.
- Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?**
Neure buruan berriro ere.
- Zeure azken erokeria.**
Nire aurrean daukadan alabatxoa. m

LABURREAN — Historia luzea dauka abeslari honek musika munduan. Iñigo Muguruzak gidatzen duen taldea gaur egun Sagarroi bada ere, Kortatu, Delirium Tremens, Negu Gorriak edota Joxe Ripiau bezalako taldeetan ere aritu izan da. Oso ezaguna da, beraz, euskal musikaren arloan Iñigo Muguruza. Jaiotzez Irunkoia den arren, gaur egun Karrantza inguruan bizi da eta argi utzi digu musika dela bere mundua. Hori dela eta, orain pare bat urte Bilboko irakasle-eskolan matrikulatu zen eta hantxe dabil musika irakasle izateko diplomatura egiten; gainera, hilabete batzuk besterik ez zaizkio geratzen ikasketak amaitzeko.



GEHI, Getxo Euskalduntzeko Hitzarmena guztioi dagokigu. Merkatariek herriaren bihotza osatzen duzue eta Hitzarmen honek ez luke behar bezalako indarra zuek gabe. Udalak tresna batzuk jarri nahi dizkizue eskura zuen lana errazteko asmoarekin.

merkataritza



1 Doako zerbitzuak

- Itzulpen Zerbitzuak
- Euskarazko Testuen Zuzenketa
- Testuen Maketazio eta Diseinua

gehi@getxo.net

2 Euskara ikasteko dirulaguntzak dendetako jabe eta langileentzat

3 Denda, toldo eta ibilgailuen errotulaziorako dirulaguntzak

Zatoz gurera, hitzarmenera, bildu zaitez euskarara

Getxoko Euskara Zerbitzua
94 466 00 10

euskara.zerbitzua@getxo.net



zure aurrezkiak saria dakar

Zure aurrezkia handitzen baduzu,
BBK-k gabonetako loteria oparituko dizu.
Informatu zaitez betiko bulegoan edo
www.bbk.es orrian.



**BBK-k
gabonetako
loteria
oparituko
dizu**

BBK =